

NAIKUA JUAT.



Bakartadeko baserri-eche gañ gañekua,
 Goi zagozana zeru onduan añ baketsua,
 Bekaizkotzen¹ dot zugan daukazun bizitz gozua;
 Zugandik dago asko urrerago gure Jainkua.
 Maitetan zaitut, maitetan zaitut, baserrichua,
 Zarialako neure asaben bizilekua;
 Maitetan zaitut zarialako lengo-lengua,
 Erdera baga bizi zarana beti dontsua.

Alde egin deusat, beian ichi dot uri arrua,
 Auşe dalako euskaldunentzat oneen lekua,
 Auşe dalako iñor ez dagon toki ezkutua,
 Emen poz pozik dakit nik joten chirolarrua,
 Mendi-mutillak, artzaiak legez gaztaiñ chistua;
 Emenche onduen dakit esaten nire kantua,
 Emenche onduen... ¿eztago iñor?... astera nua.

Garbia ta urdiña zerua gañian,
 Zelai loratsua dana apaindua,
 Arbolaz beterik inguru guztiak,
 Erreka garbia, chori-kantua...

¡Au da toki bikaiñ ta zoragarria!
 ¡Emen dago loren usaiñ gozua!
 Abarka oñatzak bide chindorretan...
 Ez dau erdaldunek emon pausua.

Ezta ona eldu erdal-berbetarik,
 Ezta emen entzun oraiñ artian.
 ¡Ez aldau eukiko sekula indarrik
 Igoteko ona, bizi gaitian!

(1) Bekaizkotu=envidiar.

Nai ta bazter baten nai genduke bizi
 Eta bizi deilla gure euseria;
 ¿Ezta berezkua izatia maite
 Norberaren gauza ta bizitzia?

¿Zergaitik aukezten¹ dabe euseria,
 Zergaitik kendu nai gure ekanduak?
 ¿Ezgaralako gu erdaldun gisara,
 Ezgaralako gu eurak lakuak?

Arbola gañian dagon chorichuak
 Gizonen gisara eztau kantetan;
 Baña orregaitik ¿zeñek esan leike
 Eztala kantu au ona benetan?

¿Ezta birtutia ezkutuan bizi?
 Eta ¿dauka berak argi biarrik,
 Baldin bada argia mundu guztirako,
 Baldin bada argia bera bakarrik?

Bizi beitez beian erdaldun guztiak,
 Beian bizi beitez uri-zaliak;
 Ichi guretzako baso ta zelaiak,
 Ichi guretzako gure mendiak.

Maite badozue zeuen erderia
 Zeuentzat beietan gorde egizue:
 Erdera bagarik ondo bizi gara,
 Bakarrik euskera nai dogu gorde.

Iñor eztago entzuten nire kanta-soñua,
 Menditik mendi oyarzunetan aidian dua;
 Aritzak eta gaztaña-arbolak aiñiak juak,
 Dabiz sosiguz, gora ta bera euren buruak...
 ¿Mendietako baimena dauka nire kantuak?
 Eztot besterik bat bere biar: naikua juat.

DOMINGO AGIRRE-KUA.



(1) Aukeztu=despreciar.